



Helduen Literatura

Damutzen ez direnak
Itxaso Araque Barriuso
Elkar, 2013

Ez damutzeko liburu bat

DAMUTZEN EZ DIRENAK du izena Itxaso Araque idazle gaztearen eleberririk. Liburua osatzen duten 248 orrialdeak arin eta plazerez irakurtzen dira, hainbat arrazoi tarteko. Hiru pertsonaia, hiru eszenatoki, hiru istorio eta hiru narratzaile.

Stuart, Andreas eta Naroa dira hemen biltzen diren hiru istorioen protagonistak. Hiru gazte, baliteke, 30 urte inguruko belaunaldiaren erakusle, Europako beste horrenbeste hiritan sakabanaturik: Berlin, Milan eta Londres. Kosmopolitismoa agerikoa denez gero, hiri handi masifikatuetan ematen diren problematikak ere ez dira falta: arrakasta eta handinahia-aren arriskuak, gizarte hierarkia gordina eta estatus sozialaren garrantzia, boterearen ustelkeria, indibidualismo bortitza, “benetazko” erlazioen zailtasuna.

Sistema, eta hein handi batean gure bizitza, gidatzen duten balore horiek guztiek nolabaiteko printzipio pertsonalen bazterketa dakartenean sortzen da barne eztabaida: bizitzan gustatzen ez zaizkigun gauza asko egin behar ditugu. *Ezin dugu beti gogoak agintzen diguna egin. Nabi edo ez, dirua behar dugu biziranteko* (191. orr). Termino psikoanalitikoak hel- tzearen, ni-a eta beste ni-aren arteko tentsio hura iruditu zait protagonisten istorioak, bakoitza bere

adierazpen pertsonalean, elkartzen dituen eleberria- ren konstanteetarikoa bat.

Umetan nabi dugun guztia lor dezakegula esaten digu- te eta ametsak sortzera bultzatzen gaituzte (192. orr). Arrakastatsu izatera bultzatzen duen diskurtso baten menpe bizi gara eta, arrazoi asko eta desber- dinengatik, gure desioei entzungor egiteko ohitura geureganatzen dugu. Momentu batean, baina, *kon- turatu zara bidean utzi duzuna faltan botatzen duzula* (185. orr), eta aurrera egin ezinean sentitzen dira pertsonaia. Inflexio puntu horretan, iragana eta orainaren artean harrapatu- rik, gaztaroko ametsak berbideratu nahian aurkituko dira, orain arte egin- dakoaz damutze edo ez damutze puntu batean.

Irakurlea pertsonaien ibilbide horren lekuko bila- katzen da; beren beldurrak eta zalantzak kanpoko munduarekin eztabaidan ikusten ditugunean, gu ere partaide garen gizarte baten kontzientzia, beste behin, bereganatzen dugu.

Horra Itxaso Araque Barriusoren liburuari heltzeagatik ez damutzeko arrazoiak. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



Kontzeju Jatetxea

Eguneko menuak, Ospakizunak
Asteburuko menu bereziak, Plater konbinatuak

☎ 943 683 327 / 656 710 073 · Hirigunea, 1 · Elduain (Gipuzkoa)

CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERIK ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com